

## **Hizkuntza eskubideei buruzko Gironako manifestua**

**PEN International-ek munduko idazleak batzen ditu.**

**Duela hamabost urte, PEN International-en Itzulpen and Hizkuntza Eskubideen Batzordeak Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin zuen publiko lehen aldiz Bartzelonan.**

**Gaur, batzorde horrek berak, Gironan batzartuta, Adierazpen Unibertsalaren oinarrizko hamar printzipioak aldarrikatzen ditu:**

- 1.- Hizkuntza aniztasuna balioetsi eta babestu beharreko munduko ondarea da.**
- 2.- Hizkuntza eta kultura guztiekiko begirunea oinarrizkoa da munduan eztabaida eta bakea eraikitzeko eta mantentzeko prozesuan.**
- 3.- Pertsona guztiek ikasten dute hitz egiten bizitza, hizkuntza, kultura eta nortasuna ematen dien komunitate baten bihotzean.**
- 4.- Hizkuntza ugariak eta hitz egiteko era ugariak ez dira komunikaziorako bide soilak; pertsonak hazi eta kulturak eraikitzen diren ingurunea ere badira.**
- 5.- Hizkuntza komunitate bakoitzak dauka bere lurraldean hizkuntza hori hizkuntza ofizial bezala erabiltzeko eskubidea.**
- 6.- Lurraldeko hizkuntza komunitateak mintzatutako hizkuntzaren prestigioari lagundu behar dio eskola-hezkuntzak.**
- 7.- Desiragarria da herritarrek hainbat hizkuntzen ezagutza orokorra izatea, horrek enpatia eta irekiera intelektualari laguntzen baitio, eta norbere hizkuntza hobeto ezagutu dadin laguntzen du.**
- 8.- Testuen itzulpena, kultura ezberdinetako lan handiak bereziki, oso elementu garrantzitsua da pertsonen arteko elkar ulertzea eta begirune handiagoa izateko beharrezko prozesuan.**
- 9.- Hedabideak bozgorailu pribilegiatuak dira hizkuntza aniztasuneko lanak egiteko eta horren prestigioa eraginkortasunez eta zorrotasunez hazi dadin.**
- 10.- Norberaren hizkuntza erabili eta babesteko eskubidea ezinbestekoz onartu behar dute Nazio Batuek, oinarrizko giza eskubide gisa onartu ere.**

**Girona, 2011ko Maiatzaren 13a.**

<http://www.pen-international.org>